

## / Nabarmenezkoak

- > Golden Apple Quarteten agur kontzertua, "¡Vamos, que nos vamos!" (3. or.)
- > Getxok Planetaren Orduarekin bat egingo du, Lurra defendatzeko natura eta klimarekin 20 urteko konpromisoa ospatzeko (4. or.)
- > Gurrpil-aulkiko Saskibaloiairen Nazioarteko Topaketa (5. or.)



\* Aste Santurako planak Getxon (4. or.)

Haur-zinemako campusa Aste Santuan. Apirilaren 7tik 10era, Romo Kultur Etxean.

**A-**  
**GENDA**

Kontzertuak. Hilak 27, ostirala, hilak 28, larunbata, eta hilak 30, astelehena, udalerriko hainbat lekutan.

• 2025ean delitu presentzialek eta informatikoez behera egin zuten, baita udalerriko hiru jai handietan (Algorta, Portu Zaharra eta Romo) erregistratutakoak ere.

• Emaiza onak eman dituzte prebentzio-lanetan polizia gehiago egoteak, herriko jaietan eta beste ekitaldi handi batzuetan kamerak jartzeak eta Ertzaintzarekin lankidetzan eta koordinatuta aritzeak (921 zeregin batera eginda).

• Udaltzaingoak prebentzio-zereginen bidez hurbiltasun-zerbitzua ematen jarraituko du, udalerriarren segurtasun handiagoa lortzen jarrai dezan.


## Getxok jarraitzen du izaten kriminalitate-tasa txikiena duen Euskal Autonomia Erkidegoko 50.000 biztanletik gorako udalerrria

Getxok jarraitzen du izaten kriminalitate-tasa txikiena duen Euskal Autonomia Erkidegoko 50.000 biztanle baino gehiago duen udalerrria, Keltse Eiguren Segurtasun zinegotziak Informazio Batzordean aurkeztu duen Udaltzaingoaren 2025eko balantzearen datuetatik ondorioztatzen denez.

Euskal Poliziaren datuen arabera, iaz delitu presentzialek eta informatikoez %4,23 jaitsi ziren, baita udalerriko hiru jai nagusietan erregistratutakoak ere, aurreko urtean baino %24 gutxiago. Emaiza onak eman dituzte prebentzio-lanetan polizia gehiago egoteak, herriko jaietan eta beste ekitaldi handi batzuetan kamerak jartzeak eta Ertzaintzarekin lankidetzan eta koordinatuta aritzeak.

### Bide-segurtasuna eta herritarren segurtasuna

Bide Segurtasunari dagokionez,



2025ean biktimak eragin zituzten istripuen kopuruak behera egin zuten, eta ez zen inor zauritu (istripuen arrazoi nagusia hutsegiteak izan ziren). Alkoholemia-eta droga-kontrolen kopuruak ere gora egin zuten.

Hurbileko polizia gisa, korrika

kopurua handitu egin zen (polizia-lanak oinez), segurtasuneko hainbat prebentzio-hitzaldi eman zitzaizkien udalerriko adinekoen elkarteei, harrera bikaina izanik, eta laguntza-lanak areagotu egin ziren, ondorez eta bide publikoan ustekabeko erorikoen ondorioz, batez ere

adinekoen artean.

Prebentzio-lanak egiten jarraitu zuten prezipitazioek, olatuek eta haizeak eragindako alerta meteorologikoak direla eta.

### Plantilla finkatua eta prestakuntza handiagokoa

Memoriak jasotzen du, halaber, Getxoko Udaltzaingoan 12 agente berri sartu direla, eta horietatik %25 emakumeak direla. Plantillaren batez besteko adina 42,7 urtekoa da. Prestakuntza-denbora ere %18,5 handitu da, eta agenteek oso ondo baloratu dute kontu hori.

Keltse Eiguren Segurtasun zinegotziak adierazi duenez, "Getxoko Udaltzaingoaren helburua da hurbiltasun- eta gertutasun-zerbitzua ematen jarraitzea, prebentzio-lanen bidez, Ertzaintzarekin lankidetzan, udalerriarren segurtasun handiagoa lortzen jarrai dezan".

## #EsperienciaINCIBE-k zibersegurtasuna hurbiltzen die herritarrei Gobela kiroldegian

Gobela kiroldegia INCIBE Esperiencia-aren agertokia da ostegun eta ostiral honetan, martxoak 26 eta 27. Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalaren ekimena da, eta haur, nerabe, familia eta enpresei zibersegurtasuna hurbiltzea du helburu, segurtasunez nabigatzeko tresna praktikoak eskainiz.

Horretarako, adin guztietarako diseinatutako doako espazio dinamiko eta hezitzaile bat egokitu da, hainbat jardura barne,



hala nola jokoak, escape room-ak eta pasahitzei, pribatutasunari eta Interneteko babesari buruzko tailerrak, hori guztia Europako funtsekin finantzatuta.

Espazioa 9:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era dago zabalik, eta informazio gune bat eta tableta dituen beste bat ditu prestakuntza pilulak egiteko (gehienez 30 minutu), guraso bitartekaritza, ingeniariaritzaren soziala edo gailuen babesa bezalako gaiak buruz.



## MARTXOAK 26 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Bihotza more Kolore" (euskaraz), Zugamarekin. 3 urtetik aurrera.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Jean-Pierre eta Luc Dardeneren "Recién nacidas" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 €.

**Literatura-solasaldia.** 19:45ean, Algortako Kasinoan, Monica Ojedaren "Chamanes eléctricos en la fiesta del sol" eleberriri buruz.

## MARTXOAK 27 OSTIRALA

**Eliz-kontzertuak. Areeta.** 19:30ean, Ama Mesedeetako parrokiak: Coral Ondarreta Abesbatza. **Algorta.** 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiak: Biotz Alai Abesbatza.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Bi baso bat ur" (euskaraz), Metrokoadroarekin. 10 euro.

**Zine Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Mario Martoneren "La vida fuera" (gaztelera). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## MARTXOAK 28 LARUNBATA

**Carnaval Boliviano de Integración.** 15:00etan irteera Kirol Portutik eta ibilbidea Bizkaia Zubiraino. Antolatzailea: Comité Cívico Cultural Boliviano en Bizkaia.

**Antzerkia.** 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "¡Silencio, se rueda!, Eskuz Eskus-eko "Las guindillas" taldearekin. 5 euro.

**Eliz-kontzertua.** 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiak, Fauré-ren "Requiem", Ars Canticum Abesbatza eta Musicum Ensemble Orkestra taldeekin.

**Kontzertua.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Vamos, que nos vamos", Golden Apple Quartet taldearen agur kontzertua. 8 euro.

## MARTXOAK 22 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Las vidas de Marona" (gaztelera). Adin guzientzat. 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Los exploradores" (gaztelera). Adin guztiak. 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Matres" (gaztelera), Campi konpainiarekin. 8 euro.

## MARTXOAK 30 ASTELEHENA

**Kontzertua.** 18:30ean, Eroslearen parrokiak, Orquesta Joven GP del Conservatorio "El Musical" de Bellaterra (Barcelona).

**Erakusketa.** Algortako Batzokia Tabernan, Paloma Gallego egilearen kortxo gaineko pintura akriliko metalizatuko lan erdieskultorikoen erakusketa. Apirilaren 30era arte.

## APIRILAK 7 ASTEARTEA

**Aste Santuko haurrentzako zinema-campusa. Romo Kultur Etxean.** 11:30-13:00, tailerra "Tu cartel de cine" (ele bitan). 6-11 urte. Doan. Aldez aurretik izena eman behar da. **Proiektzio dinamizatua.** 17:30ean, "Cops (La mudanza) & El navegante" (gaztelera). 3-5 urte. 2,5 €.

## APIRILAK 8 ASTEAZKENA

**Aste Santuko haurrentzako zinema-campusa. Romo Kultur Etxean.** 11:30-13:00, tailerra "Tu cartel de cine" (ele bitan). 6-11 urte. Doan. **Proiektzio dinamizatua.** 17:30ean, "Kiriku eta sorgina" (euskaraz). 3-5 urte. 2,5 €.

## APIRILAK 9 OSTEGUNA

**Aste Santuko haurrentzako zinema-campusa. Romo Kultur Etxean.** 11:30-13:00, tailerra "A-som-bra-te" (ele bitan). 6-11 urte. Doan. **Proiektzio dinamizatua.** 17:30ean, "La pequeña linterna: sesión descubrimiento". 3-5 urte. 2,5 €.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Alauda Ruiz de Azuaren "Los domingos". Helduentzat. Sarrerak agortuta.

## APIRILAK 10 OSTIRALA

**Aste Santuko haurrentzako zinema-campusa. Romo Kultur Etxean.** 11:30-13:00, tailerra "A-som-bra-te" (ele bitan). 6-11 urte. Doan. **Proiektzio dinamizatua.** 17:30ean, "Linterna txikia: emozioen saioa" (euskaraz). 3-5 urte. 2,5 €.

**Zine Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Richard Linklateren "Nouvelle Vague" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## APIRILAK 11 LARUNBATA

**Dantza plaza.** 19:30ean, Algortako Geltokiko plazan, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

## APIRILAK 12 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Tom txiki eta ispilu magikoa". Adin guzientzat. 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Mi querido monstruo". Adin guztiak. 2,50 euro.

- **Bidaia ajentza** familien bila dabil hiru edo lau egunez eskola bidaia egingo duten 2 edo 3 ikasleri ostatua emateko. Zure ohiko jarduerak egin ahal izango dituzu, diru apur bat irabazten duzun bitartean. Tel.: 609 90 58 26.



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bitzitzairek lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Zure gustuko **ikasketak euskaraz** eta etxetik gertu

**nahidudalako.eus**

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren Batxilergo zein Lanbide Heziketako ikasketak **klik batean.**

Zeure iritzia ezinbestekoa da geuretzat. Sartu [www.nahidudalako.eus](http://www.nahidudalako.eus) webgunean, galdetegia bete eta **sari zoragarriak irabazi.\***

- 1 Apple iPad 10,9" Wi-Fi | 256GB
- 2 DJI Mini, 4k Dronea
- 3 Kirolaz eta kulturaz gozatzeko opari-txartelak

## Euskarazko ikasketak sustatzeko kanpaina

Beste urte batez, Udalak Batxilergo eta Lanbide Heziketaren ikasketak euskaraz sustatzeko *Nahi dudalako!* kanpaina parte hartuko du, datorren matrikulazio epeari begira. Kanpaina Bizkaiko 15 udalerritan eta bi mankomunitatetan eramango dute aurrera, Alkarbide, EUDEL eta Foru Aldundiarekin elkarlanean. 15 eta 16 urteko gazteei eta euren gurasoei zuzenduta, helburua da DBHeko 3. eta 4. mailan ari direnek aurrerako ikasketetan ere euskarazko eredu aukeratzea eta horretarako informazioa ematea. Horretarako, Udalak informazio foiletoren 3.200

ale eta 100 kartel banatuko ditu ikastetxeetan, institutuetan, Gazte Informazio Bulegoan, kiroldegietan, liburutegietan...; 2010ean eta 2011n jaiotako 1381 gazteren etxetara esku-orria bidaliko du eta gainera, eskutitz bat 2010ean jaiotako gazteren gurasoen 730 etxetara. Horretan [www.nahidudalako.eus](http://www.nahidudalako.eus) webgunean sartzera animatzen du, bertan egun dagoen hezkuntza eskaintza azalduz, baita inkesta bat betetzera ere, horrekin hainbat sari (Ipad bat, drone bat eta 100 eta 125 euroko opari-txartelak) irabazteko aukera izango dutelako gazteek.



## Alemaniko ikasleei harrera

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak harrera egin dio, aste honetan Udaletxean, egun hauetan Julio Caro Baroja institutuarekin hezkuntza-elkartrukea egiten ari den Alemaniako Wiesbadengo IGS Kastellstrasse bigarren hezkuntzako ikastetxeko ikasle talde bati. 13-14 urteko 14 neska-mutilek hartu zuten parte ekitaldian, Getxoko ikaskideekin eta bi ikastetxeetako irakasleekin batera. **Hizkuntzak** ingelesez ikasten duen Erasmus programa batean parte hartzen dute. Euskadin dauden bitartean, gazteek bisita kulturalak egingo dituzte Getxon, Gernikan, Gatzelugatzen eta Bilbon.

## Sendiren tailerrak

Udalaren eta Egizu elkartearen eskutik, euskararen erabilera familian sustatzen duen SENDI programak beste bi tailer antolatu ditu apirilera. Lehen Psikomotritzitateari buruzkoa izango da, apirilaren 12an, igandea, 11:00etan, eta apirilaren 17an, ostirala, 17:00etan, Aldai Patronatoan. 1-2 urteko haur txikiak dituzten familientzat pentsatuta, mugimenduaren bidez, gorputza, burua eta emozioak elkar lotzen dituen esperientzia aberasgarria izango da.

Bestalde, apirilaren 26an, igandean, 10:30ean, Kandelaterra izango da Azebarri Kultur Elkartearen egoitzan. Parte hartzaileek eskuz egindako kandela aromatikoa sortzen ikasiko dute, pertsonalizatua eta eskuz egindakoa. Horretarako, kristalezko potexoak, landare esentziak, pigmentuak, lore eta beste apaingarri batzuk erabiliko dituzte.

Parte hartu nahi duten pertsonak aurretik izena eman beharko dute 622 433 085 zenbakiaren edo [sendigetxo@gmail.com](mailto:sendigetxo@gmail.com) emailaren bitartez.

## Argiztapen solidarioa

Areetako kaia eta igogailu publikoak urdinez argiztatu dira apirilaren 1eko eta 2ko gauetan. Horren arrazoia da Autismoari buruzko Kontzientziazioaren Munduko Eguna ospatzea, sentsibilizatzeko, inklusioa sustatzeko eta estigmatik desagerrarazteko.

## TIG irekiko da, Bizkaia Zubiaren ondoan

Ostiral honetan, Bizkaia Zubiaren ondoan dagoen Turismo Informaziorako Gunea (TIG) jarriko da martxan. Egunero 10:00etatik 14:00etara eta 14:30etik 18:30era irekiko da.

Bien bitartean, Ereagako Turismo Bulegoak neguko ordu-tegia mantenduko du maiatzaren 31ra arte: astelehenetik larunbatera, 09:30etik 14:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Igandean 09:30etik 14:30era

Informazio gehiago: 94 491 08 00 telefonoan eta [infoturismo.getxo.eus](http://infoturismo.getxo.eus) helbidean.



## Golden Apple Quarteten agur kontzertua, “¡Vamos, que nos vamos!”

Golden Apple Quartet ahots lau-kote ospetsuak agertokiak utziko ditu aurten, eta martxoaren 28an, ostirala, Muxikebarrira iritsiko den *¡Vamos, que nos vamos!* izeneko agur birarekin egingo du. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da. Ikuskizun honetan ia berrogei urteko musika, umore eta gorabehera eszenikoen erreposoa egiten dute, hamarkada bakoitzeko one-

na aukeratuz erlojugile suitzar baten zehaztasun kirurgikoarekin... zotinarekin, hori bai.

Beren publiko leialenean arrastoa utzi duten abesti horiek berreskuratu dituzte, haiengana aldizka, modu desleialean edo soilik bitxian hurbildu zirenak ahaztu gabe.

Ironiaz, konplizitatez eta irriban-

rrea galdu gabe joaten dakiten taldeek bakarrik duten distira nahastezinez betetako agurra.

*¡Vamos, que nos vamos!* obran, publikoak artisten elkar ulertze handia ikusi ahal izango du, baita Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Manu Romano eta Mikel Urreiztiren ahotsen kalitate tekniko indartsua ahaztu gabe erakusten duten umore atsegina ere.



## Bueltan da Boliviako Integrazioko Inauteria

Larunbatean, hilak 28, gure udalerriko kaleak Boliviako Integrazioko Inauteriaren agertoki izango dira berriro. 15:00etan, Andeetako tradizioa islatzen duten musika eta dantza folklorikoak biltzen dituen desfile koloretsua abiatuko da Kirol Portutik, eta Bizkaia Zubia izango du helmuga. Bizkaiko Comité Cívico Cultural Boliviano elkarteak antolatzen du, eta anaiarte ezberdinetako ehunka dantzari biltzen dituen ekitaldia da.

## “¡Silencio, se rueda!” antzezlan, Areetan

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan *¡Silencio se rueda!* obra antzeztuko da larunbat honetan, martxoak 28. Jorge Santosek zuzenduta, Las Guindillas antzerki taldeak interpretatzen du antzezlan. Hain zuzen ere, Getxoko Eskuz Esku elkartearen emakumeek osatutako taldea da.

Eszenaratzea 19:00etan hasiko da, eta sarrerak 5 euroko prezioa du.

## Erakusketa Algortan

Datorren apirilaren 30era arte, Algortako Batzoki Tabernan, Paloma Gallego egilearen Espadan mendilerroko (Castelló) kortxo gaineko pintura akriliko metalizatuko lan erdi-eskultorikoen erakusketa bat bisitatu ahal izango da. Tamaina eta gai ezberdinetako hamaika obra dira. Bisita ordutegia: 09:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 23:00etara.

## “Bi baso bat ur” lanak pozari eta umoreari buruzko gogoeta egiten du, mina eta ahalduntzea gainditzeko

Metrokoadroka esperimentazio eta sorkuntza artistikoko taldeak *Bi baso bat ur* euskarazko obra antzeztuko du ostiral honetan, martxoak 27, Muxikebarrin, 20:00etan. Tratu txar edo trauma egoerak gainditu ondorengo poztasunari eta ahalduntzeari buruzko gogoeta da. Dantza pista batean geldirik dauden lau pertsona antzezten ditu, ur edalontziei eusten, umorearen eta mina gainditzearen bidez zorionerako eskubidea esploratzen. Sarrerak 10 euro balio du.



## “Matres”, hainbat amatasun omentzen dituen familia-ikuskizuna

Igandean, hilak 29, publiko familiarak (6 urtetik aurrera) Campi qui pugui leridar konpainiaren *Matres* antzerki ikuskizun sarituaz gozatu ahal izango dute. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

Hiru belaunaldiz inguratutako herri txiki batean hazten den Jordiren istorioa kontatzen du lanak: ama, amona eta izeba (“*hiru amak*”). Horretarako, Aitana Giraltek, Cristina Garciak, Erik Vareak eta Jordi Pedrosek antzerki fisikoa, maskarak eta txotxongiloak erabiltzen dituzte esperientzia bisual eta emozional sakona sortzeko.



# Esperientzia eta jarduera turistikoak Aste Santuan eta Pazko Astean Getxon gozatzeko

Turismo Bulegoak Aste Santuko eta Pazko Asteko egunetarako aisialdiko jarduera eta esperientzien eskaintza plazaratu du.

**\*Bisita gidatua, Areeta bere sustraietatik.** Apirilaren 3an, 17:00etatik 18:00etara, eta 5ean, 11:00etatik 12:00etara. Prezioa 2 euro (12 urtetik beherakoak doan). Elkargunea ITG izango da, Bizkaia Zubiaren ondoan.

**\*Antzeztutako bisita, Portu Zaharra bere sustraietatik.** Apirilaren 4an, 11:00etatik 12:00etara. Prezioa 6 euro (12 urtetik beherakoak doan). Topagunea Ereagako Turismo Bulegoan izango da.

**\*Bisita geologikoa, Bizkaiko flyscha familian.** Apirilaren 3an eta 5ean, 17:30etik 20:00etara. Prezioa: 15 euro.

**\*Bisita geologikoa, Naturgaua. Gaueko abentura familian.** Apirilaren 3an, (ostirala) 22:00etatik 00:00etara. Prezioa: 15 euro.



“Portu Zaharra bere sustraietatik” antzeztutako bisita

**\*Bisita gidatuak, Punta Begoña Galeriak.** Hilaren 2an, 12:00etan euskaraz; apirilaren 3an 17:30ean eta 4an eta 6an, 12:00etan, gaztelaniaz. 10ean, 11n eta 12an, 12:00etan, gaztelaniaz eta 5ean, 10:30ean, paisaia-ibilbidea egingo da. Prezioa 3 eurokoa da, 10 urtetik gorakoentzat.

**\*Irteera, Ilunabarra belaontzian.** Apirilaren 2an eta 3an, 19:30etik

22:00etara. Prezioa: 49 eurotik gora. Irteera bermatua.

**\*Irteera belaontzian, Labarrak itsasotik inguratuz lau orduz.** Apirilaren 3an, 10:00etatik 14:00etara. Prezioa 60 eurokoa da. Irteera bermatua Kirol Portutik (Kapitaintza).

**\*Irteera belaontzian, Ezagutu ezazu Getxoko kostaldearen historia.**

Apirilaren 11n, 16:00etatik 20:00etara. Prezioa: 80 €. Irteera bermatua.

**\*Nabigazio Lizentziaren ikastaroa.** Apirilaren 12an, 09:00etatik 15:00etara. Prezioa: 150 euro. Ikastaroa bermatua.

**\*Surf bataioa.** Apirilaren 4an, 5ean, 11n eta 12an, 12:00etatik 14:00etara. Prezioa: eguneko 35 eurotik gora. Info: <https://labur.eus/upp0iks2>

## Getxok Planetaren Orduarekin bat egingo du, Lurra defendatzeko natura eta klimarekin 20 urteko konpromisoa ospatzeko

Udalak bat egingo du beste behin Planetaren Orduarekin, Naturaren aldeko Mundu Funtsak (WWF) bultzatutako ekimena, eta aurten naturarekin eta klimarekin 20 urteko konpromisoa ospatuko du, Lurra defendatzeko.

Larunbat honetan, martxoak 28, egingo da, eta ohikoa denez, argiak itzaliko dira ordubetez, 20:30etik 21:30era, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Areetako eta




Arrigunagako hondartzetan (paisaia-argiak), eta Areetako Kaiko pasealekuan eta Portu Zaharreko zabalgunean (argiztapen apaingarria).

Udalak herritar getxotar guztiak ere ekimen honekin bat egitera gonbidatzen ditu beren etxeetako argiak amatatu eta natura eta klima defendatzeko ualerriak duen konpromisoa adierazteko, “Getxo eta planeta berdeago eta jasangarriago baten alde”.



### Kandelu erreka berreskuratu da, Errotatxun

Udaleko Ingurumen Unitateak jarduketara egin du Kandelu erreka ingurumena berreskuratzeko eta hobetzeko, Errotatxu industrialdearen atzealdetik doan zatian (276 metro inguruko zatia). Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako lan horien helburua ingurune naturala berreskuratzea, ibilguaren kalitate ekologikoa hobetzea eta bertako flora eta faunaren presentzia erraztea izan da. Burutu diren lanen arabera, hiri-hondakin solidoak eskuz kendu dira, landare inbaditzaileak, sasiak eta errekaaren ahalmen hidraulikoa murrizten zuen landaredia kendu dira eta bertako landaredia erein eta landatu da.



### Berritze lanak Lorenzo Areilza parkean

Algortako Lorenzo Areilza parkea partzialki berritu da. Haurrentzako jolasgunea mugatzeko itxitura perimetrala estreinatu da (9.783 euro inbertitu dira neurri horretan), eta parkearen izen bera duen kaletik erraz sartu ahal da bertara. Paperontzi berriak ere baditu; espaloia hobetu da, eta bertan autobus geltokiaren seinale berria ipini da, garraiatzeko arauaren arabera; eta zintarriak zuzendu dira, pasabidearen zabalera errazteko. Edizio hau ixtean, oraindik egitekoak ziren soropilaren zatia berrereiteko lanak, klimatologiaren zain.

**Euskadik eta Portugalek lagunarteko bikoitza jokatu dute  
Faduran martxoaren 30ean eta apirilaren 1ean**

## Gurpil-aulkiko Saskibaloia Nazioarteko Topaketa

Fadurako kiroldegiak gurpil-aulkiko Saskibaloia Nazioarteko Topaketa hartuko du datorren astelehenean, martxoak 30, eta asteazkenean, apirilak 1, eta bertan Euskadiko eta Portugalgo selekzio absolutuek lagunarteko bikoitza jokatu dute. Partidak 16:30etik aurrera jokatu dira kiroldegiko kantxa nagusian.

Kirol hitzordu hau Kirol Egokituaren Euskal Federazioak antolatzen du, Getxo Kirolak, Getxoko Saskibaloia Kluba eta Euskal Federazioen Kirol Batasunaren (EKFB) laguntzarekin, besteak beste. Kirol topaketa honen antolatzaileen arabera, jardunaldi bikoitzak lehen mailako kirol ikuskizuna eskaintzeaz gain,

“Euskadik kirol egokituarekin, aukera berdintasunarekin eta kirolaren bidezko berrikuntza sozialarekin konprometitutako lurralde gisa duen proiektzioa indartuko du”.

Nazioarteko topaketa ekitaldi paregabea da eskualdean, eta horri esker lurraldea erreferente izango da kirol egokituaren eta goi mailako kirolaren sustapenean. Era berean, kirol inklusiboa normalizatu nahi du arlo guztietan holako ekimenekin. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol hori bultzatzearen aldeko apustu estrategikoa da, bai eta erakundeen, kirol-elkarteen eta enpresa-sarearen artean sinergiak sortzearen aldekoa ere, erakunde antolatzailetik adierazi dutenez.

**Hiru distantzia ezarri dira maila guztietarako**

## Getxoko III. OTSO Maratoi Erdia hilaren 29an korrituko da

Igande honetan, martxoaren 29an, Getxoko III. OTSO Maratoi Erdia jokatu da, Club Atletico Getxok antolatuta Getxo Kirolaren laguntzarekin. Probak maila guztietarako egokitutako hiru modalitate eskaintzen ditu, bai esperientzia duten atletentzat, bai kirol horretan hasitako pertsonentzat: 21 km-ko maratoi erdia eta 10 eta 5 km-ko lasterketak.

Lasterketaren irteera eta helmuga Fadurako kiroldegian egongo dira. Lasterketa nagusia 09:00etan hasiko da eta beste biak, berriz, 11:30ean. Proba igaroko den hainbat puntutan zirkulazio-etenak eta zirkulazio-murrizketak erregistratuko dira.



**Ane Miren Santamariak brontzea lortu du bizkarreko 50 m-tan**

## Nara Selas igerilariaren saio itzela Espainiako Txapelketan

Getxo Igeriketa taldeko haur igerilaria den Nara Selas Montejok, Sabadellen (Bartzelona) egin berri den Neguko Espainiako Txapelketa bikaina egin zuen, hiru domina lortu baitzituen: urrea 200 metroko bular-igeriketa proban (laugarren postutik lehen postura igo zen, bigarren sailkatua hiru segundo baino gehiagoz gaindituz) eta zilarra modalitate bereko 50 eta 100 metroetan.

Gainera, txalotzekoa da, 100 metroko proban, Narak ekainean Serbian jokatu diren Europako Txapelketarako txartela ematen dion gutxieneko marka egin zuen.

Txapelketa berean, Ane Miren Santamaria taldekideak brontzezko domina lortu zuen bizkar estiloko 50 metrokoan.



## Optimist klaseko Espainiako Txapelketa Abran jokatu da

Abrako uretan izango da astelehen honetatik, martxoak 30, larunbata arte, apirilak 4, belako Optimist klaseko Espainiako Txapelketa, Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Clubek (RCMA-RSC) antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Ekitaldia goi mailako lehiaketa da, eta hainbat erkidegoetako eta klubetako 155 parte-hartzaile bilduko

ditu guztira, 13 eta 16 urtez azpiko kategorietan.

Txapelketaren lehen bi jardunaldiak parte-hartzaileek izena emateko izango dira, eta gainerako laurak lehiaketa egiteko. Aurreikusita dago hiru ibilbide jokatzeko 11:00etatik aurrera, hamabi proba guztira, eta horietatik bi osatu beharko dira txapelketa baliozkoa izan dadin.

## Brontzezko bi domina Getxo Kayakarentzat neguko estatuko txapelketan

Ainhize Olaitzek (goiko argazkian, podiumaren eskuinaldean) eta Javier Perezek (beheko argazkian), Getxo Kayaka klubeko ki-deak, brontzezko bi domina lortu zituzten hilaren 13an Sevillako La Cartujan ospatutako Espainiako Neguko Piraguismo Txapelketan. Ainhizek metala eskuratu zuen 5.000 metroko proban, 35 eta 39 urte bitarteko kategorian, eta Javierrek distantzia berean, 75 eta 79 urte bitarteko kategorian, hain zuzen ere.

Txapelketa berean, junior mailan Izar Libanok 18. postua lortu zuen, Saioa Perezek 47.a eta maila absolutuan Mikel Velascok 52.a. Horiek ere talde getxotarreko arraunlariak dira.



## Olaia Tejadak hiru domina eskuratu ditu Nazioarteko Dantza Txapelketan

Olaia Tejada Sainz Getxoko Club Show taldeko dantzari eta patinatzaileak garaikurrak pilotzen jarraitzen du. Oraingoan, hiru domina, bi urre dantza klasikoan eta modernoan, eta zilar bat *classic open* modalitatean, martxoaren erdialdean Alemanian egindako Nazioarteko Txapelketan irabazi zituenak. Txapelketan, anfitrioiak berak, AEBk, Errusiak, Ukrainak, Suediak eta Suitzak parte hartu zuten, besteak beste. Gainera, Olaia laugarren eta bosgarren postuetan sailkatu zen beste bi dantza diziplinetan (Renegade eta koreografiak). Beraz, kirol arrakasta berri bat Olaia Tejadarentzat. Datorren uztailean Alemaniara joango da berriro diziplinako Munduko Txapelketa jokatzeko, non lau aldiz ere txapeldun izan den.



# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, MUGIKORTASUNAREKIKO ETA IRISGARRITASUNAREKIKO BENETAKO KONPROMISOA

XXI. mendeko mugikortasunarekiko konpromisoa, jasagarritasunean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarrituta. EAJ-PNVren konpromiso hori egia bihurtzen ari dela ikusten ari gara. «Getxok natura-ingurunea errespetatuko du eta jasagarria eta segurua izango da» da getxotarrekin dugun ituna, zeina 2030 Agendan ere baitago, udal-gobernuaren ekintza-planarekin. Hiri-eraldaketa jasagarria izeneko ardatz estrategikoa agertzen da, mugikortasunean eta irisgarritasunean aurrera egiteaz hitz egiten duena. Eta dagoeneko egiaztatzen ari gara, nahiz eta nahiko genukeen baino denbora gehiago behar izan dugun, egia bihurtzen ari dela. Betetzen ditugun eta jada goza ditzaizkegun proiektua eta konpromisoak. Adibide gutxi batzuk: BIZIPARK: bizikletentzako lehen apartakaleku publiko segurua Manuel Gainza apartakalekuan. Apartakalekua Foru Aldun-

diarekin lankidetzan ireki da, eta hauek dituzte: 32 bizikletarentzako lekua, sarbide-kontrola, barruko argiztapen iraunkorra, suaren aurkako zortzi segurtasun armairu, banakako elektrizitate hargunea, eta Udaltzaingoa segurtasun-zerbitzuarekin konektatutako kameren bidezko zaintza-sistema. Amaia Aguirre alkatearen hitz aditueta, «etorkizunari ausardia begiratzen dion eta jasagarritasunaren aldeko apustua egiten duen Getxoren isla da, ingurune garbiago, seguruago eta gizatiarrago baten aldeko hautu argia». BIZKAIBIZIKO GELTOKI BERRIAK: Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta, Bizkaibizi bizikleta publiko hiru geltoki berri instalatu dira Iparbiden, Maidaganen eta Sarrikobason. Izan ere, Getxo Bizkaibizi sarea gehien erabiltzen duen udalerrria bihurtu da; nabarmentzekoa da, gainera, Bizkaia osoan gehien erabiltzen diren 10 geltokietatik 7 Getxon daudela.

BIDEGORRI BERRIA: dagoeneko adjudikatu dira Bidegorri berrirako obrak, Andra Mari Ikastetxetik eta Aixerrota Institututik Galea pasealekuko bidegorriraino, eta Algortako erdialderaino iristen denarekin bat egingo du. Ikastetxe horietako ikasleek proposatutako eskaera hori laster gauzatuko da, 585 metroko luzerarekin, Galea pasealekuaren eta Eperra kalearen artean, Santa Marinako atxarekin bat egiten duen lekuan, eta Bostgarrenan pasabide goratu batekin. SALSIDU: bai, Salsiduko arrapaletako arazoak konpondu ahal izango ditugu azkenik. Dagoeneko 9 arrapaletatik 6 ari dira funtzionatzen, eta, gainera, arrapala mekanikoetako ekipo elektromekanikoaren modernizazio integralerako kontratua (ia milio bat eurokoa) lizitatzeko prozesua hasi da. Lan oso konplexua eta oso garrantzitsua da, eta arrapalen funtzionamenduan eta konponketetan hobekuntza



nabarmena bermatu ahal izango du. Getxoko kale garrantzitsua da, eta bizilagunek eskatutako argi berriekin, zuhaitzen hobekuntzarekin eta horien konponketekin, irisgarritasunean eta segurtasunean aurrera egiten ari gara. EAJ-PNV taldeak konpromisoak betetzen ditu.



## SEGURTASUN HANDIAGOA GETXON SAN NIKOLAS PLAZAN UDALZAINGOAREN BESTE POLIZIA-ETXE BAT KOKATZEARI ESKER

Algortako San Nikolas plazan Udaltzaingoa beste polizia-etxe bat irekitzea proposatzen dugu, gure udalerriko segurtasuna indartze aldera. Ekimen hori kriminalitateari buruzko azken datuak ezagutu ondoren sortu zen; izan ere, datu horiek arau-hauste penalen gorakada islatzen dute. 2025eko laugarren hiruhilekoan 617 kasu erregistratu ziren, eta aurreko urteko aldi berean, berriz, 551 kasu izan ziren. Hala, gora egin zuten delituek, hala nola etxebizitzetako lapurretak, ebasketak eta ibilgailuen lapurretak. Egoera horren aurrean, beharrezkotzat jotzen dugu auzoetan poliziaren presen-

tzia indartzea eta delituei aurrea hartzen eta bizikidetzaz hobetzen lagunduko duen gertuko polizia-eredu baten alde egitea. Gure proposamenaren arabera, polizia-etxe hori San Nikolaseko Telefónica eraikin zaharrean kokatuko da. Gune hori ondo dago kokatuta, eta udal-titularitasuneko izango da aurrerantzean. Uste dugu kokapen hori estrategikoa dela udalerrian jardueraren gehien duen eremuetako bati zerbitzua emateko. Neurri horren bidez, Udaltzaingoa bizilagunei hurbildu nahi diegu, baita Getxoko segurtasun-beharrei erantzun eraginkorragoa eman ere. #Andrade2027



## ehbildu

## KORRIKA GETXOKO KALEETAN: EUSKARAREKIN BAT EGIN!

Badator Korrika berriz, bi urteren ondoren, eta aukera paregabea dugu berriz ere euskararekin bat egin eta kaleetara euskararen aldeko aldarriak ateratzeko. Atharratzen ekin zion bideari martxoaren 19an Korrikaren 24. edizio honek, eta Bilbon topatuko du helmuga martxoaren 29an, "Euskara gara" lelopean. 24. edizio honek, gainera, badu bere berezitasuna gure herrian: izan ere, 2025. urtean zendu zen Irune Etxebarriari, korrikaren sortzaile eta sustatzaileari, omenaldia egin dio Itzubaltzeta-Romon AEKak. Euskal Herri osoan zehar, eta baita gure herrian ere, belaunaldiz be-

launaldi egindako lanari esker ospatzen dira gaur egun korrika bezalako egitasmo aldarrikatzaile, eder eta arrakastatsuak; eta bizi osoan zehar euskararen militante izan diren horiei aitortza egitea da gutxienezkoa. Are, egungo egoeran berebiziko garrantzia du euskararen aldeko aldarrikapen nekaezin horrek. Euskararen aurkako oldarraldiaren testuinguruan, hizkuntza eskubideen alorrean atzerapausoak emateko arriskua ez da inolako huskeria. Alde batetik, azken asteetan jakin dugu oldarraldi hori uste baino antolatua zegoela; eta beste alde batetik, nahiz eta

tartean helegiterik ez egon, gurea bezalako udalerritan hizkuntza-eskakizunak ez dira nahikoak euskal hiztunen eskubide linguistikoak bermatzeko. Adibide zehatzak emanez, Getxoko Udalak pasadan urtean iragarritako Enplegu Eskaintza Publikoak 95 lanpostu beteko ditu, baina horietatik erdiek baino ez dute euskararen ezagutza eskakizuna jasoko; gainerakoetan, hizkuntza-eskakizunak atzeratu edo zuzenean ezarri gabe utziko dira. Honen aurrean EH Biltutik eskatu genuen, etorkizuneko lan-deialdi guztietan euskarazko eskakizuna derrigorrez ezartzea, normalizazio

plana betearazteko baliabideak jartzea, eta udal-zerbitzu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz artatzeko eskubidea bermatzea. Osoko bilkuraren gehiengoak ezekoa eman zion proposamenari. Honek bolo-bolo dagoen itxurakeriaren inguruko eztabaida ere ekartzen du gogora: zenbait eragilek euskararen kontra lan egiten dute —edo behintzat ez dute aldeko apusturik egiten—, eta gero argazkian agertu gabe geratzeak kezkatzen ditu. Euskararen normalizazio prozesuari korrikak erakutsi bezala behar zaio ekin, tipi tapa tipi aurrera eta atzerapausorik eman gabe.



## EMAKUMEAK BURU DITUEN EKINTZAILTZETA BABESTU ETA BULTZATZEN DUGU

SARENESK Getxoko emakume ekintzaileen sare egonkor eta eraldatzailea da. Dagoeneko 50 emakumek baino gehiagok osatzen dute Sustapen Ekonomikoaren Arloak (PSE-EEK kudeatuta) Emakumeekin batera bultzatutako proiektu hau. Lehen urratsak ematen ari diren eta saltokiak finkatzea lortu duten emakumeen arteko lotura bultzatzen du, eta horrek laguntza, ikaskuntza eta hazkunde

partekatuko ekosistema sortzen du. Horren bilakaerak erakusten du ez dela ekimen puntuala, emakumeak buru dituen ekintzailetzarako gune erreferentea baizik. SARENESK jatorria genero-ikuspegia politiketan eta sustapen ekonomikoaren esparruan txertatzea ezinbestekoa delako ustea da. Horrela, sareak sororitatearen ikuspegitik sortzearen balioa erakutsi du, non emaku-

meen arteko lankidetzaz eta elkarrekiko laguntza garapenaren motorrak diren. PSE-EEen proiektu horren indarrak fidatzen gara; izan ere, talentua ikusarazten du, konfiantza sortzen du, anbizioa sustatzen du eta aukera berriak bultzatzen ditu. SARENESKek Getxoko emakumeen lana, haien etorkizuneko ikuspegia eta udalerririko dinamiko eta berritzaileago baten erakuntzan duten rol aktiboa balioesten ditu.



## LOKAL BETEAK, AUZO BIZIAK

Kale-merkataritza Getxoko bizitzaren funtsezko zatia da, baina hutsik dauden lokalak gero eta gehiago dira. Hori sailhesteko, «Lokal Babestuak» sortzea proposatzen dugu. Zehazki, ekimenaren xedea da arrazoizko alokairuen bidez saltoki berriak bultzatzea eta kaleko artea erabiltzea hutsik dauden tokiak biziberritzeko. Helburua da jardueraren berreskuratzea, tokiko merkataritza babes-tea eta auzoen nortasuna zaintzea.